Deusto
Facultad de Ciencias Sociales y Humanas
Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea
Faculty of Social and Human Sciences

Komunikazioko Graduko tituludunaren profila

Titulazioaren helburua da profil malgua, diziplinartekoa, sortzailea, berritzailea eta ekintzailea duten komunikazioko profesionalak prestatzea. Tituluduna komunikazioa ikuspegi integraletik ulertzen duen komunikatzailea izango da, gai izango da errealitatea kritikoki aztertzeko, inguruneko beharretara egokitzeko, eta sen etiko sakonarekin eta konpromiso zibikoarekin lan egiteko.

Titulazioak komunikazioaren hiru ardatz nagusiak ditu gogoan: pertsonen artekoa, bitartekoa eta erakunde mailakoa. Tituluaren amaieran, tradizioz kazetaritzarekin, Sarearen ingurunera egokitzearekin, pertsonen arteko trebetasunen garapenarekin eta gure gizarte-sarea osatzen duten erakunde guztietan komunikazioak duen garrantzia ulertzeko kontzientziarekin eta gaitasunarekin lotu ohi diren trebetasunak konbinatzen dituen oinarria eskaintzen da, eta oso esplizituki aipatzen da komunikazio planak eta estrategiak diseinatzeko eta gauzatzeko gaitasuna.

Zehazki, Komunikazioko graduak honako hauek eskaintzen dizkie ikasleei:

- Prestakuntza edukietan, hau da, komunikatzailea inguratzen duen gizarte-inguruneko arazoetan eta egoeran
- Komunikazioko eta tradizio humanistako trebetasunak, hala nola hizkuntzaren erabilera egokia
- Epe ertain-luzerako komunikazio planak diseinatzeko eta gauzatzeko eta komunikazioko estrategiak ezartzeko gaitasunak
- Kazetaritzako teknikak ezagutzea

Oinarri komun horren gainean, titulazioak bi espezializazio bide ditu: kazetaritza eta informazio bidea, batetik, eta erakunde eta enpresa bidea, bestetik.

Horri guztiari esker, tituludunak komunikabideetan (prentsan, irratian, telebistan edo webgunean) lan egin ahal izango du, bai eta komunikazio planak eta estrategiak planifikatu, diseinatu eta kudeatu ere, halako espezialistak behar dituzten enpresa eta erakunde mota guztietan.